

Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola

ZALBIDE, Mikel
Euskaltzain osoa

Errenteriako seme eta Euskal Herriko plazagizon ageri, gogoetagile sakon eta solaskide zorrotz, euskaltzain oso eta unibertsitate-esparruko irakasle handi izanik dugu Koldo Mitxelena. Jaio zeneko mendeurrena izanik aurren, ugarituz doaz han-hemen bere gorazarretan antolaturiko ekitaldiak. Ez da gaurko hau lehenengoa, dakidalarik hirugarrena baizik, eta ez da seguruenik azkena izango.

Esker ona erakusteaz gainera gogoeta egin nahi du gaurkoan Euskaltzaindiak, ageriko bilkuraz eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bat eginik, bere kide suhar, aztertzaile gailen eta argi-emaile handi izandako Koldo Mitxelenaren lanaz eta oihartzunaz. Bere ekarri akademiko-intelektualaz jardun nahi du Akademiak ekitaldi honetan, Koldok utzi digun ondare aberatsa bi aldetatik arakaturik: gure arteko ikuspegi soziolinguistikoen sorreran eta bilakaeran Mitxelenak izandako lekua eta pisua jorratu nahi da batetik; hizkuntzaren corpusa eguneratu eta bateratzeko saioetan Errenteriako euskaltzain linguistak izandako giltzarri-izaera azpimarratu nahi da bestetik. Lehen atala jorratzea eskatu dit Euskaltzaindiak. Pozik eta esker onez natorkizue: ohore handia da niretzat, atsegin izateaz gainera, Mitxelenaren gorazarretan antolatu den ekitaldi honetan nire jakite-esparruko gogoetaren bat edo beste, xume eta labur, zuen artean jaulki ahal izatea. Koldoren beraren esaldi ezaguna eskaini dit puntu-jartzaileak, hitzaldia nola landu eta nola enfokatu zedarriztatzeko: «Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean:

Euskera. 2015, 60, 1. 19-48. Bilbo
ISSN 0210-1564

handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia»¹.

Poz-atseginaz gainera beldur-punttua ere badut ene baitan, azalpen hau aurkezteko orduan. Garbi esango dizuet zergatik. Mitxelenaz jendaurrean hitz egiterakoan, aurreko batean adierazia dudanez², arriskua daukagu gure burua biografo ordeztu hagiografo bihurtzeko. Haren laudoriotan esatekoak neurritz kanpora atereaz, azterketa kritiko pausatua zenbait eskakizun, haizeak orbela bezala, noraezean uxa dezakegu. Egia da arrisku hori apalagoa dela Koldoren kasuan: bere ekarpen zientifiko-akademikoen handiak eta aberatsak berme biziegia dute, gehiegizko okerbidera neurritz gain murtzeko. Arriskua hor dago, ordea, eta ez genuke gutxietsi behar. Bere esan-eginak analizatu eta baloratzerakoan hagiografo gisa jokatu bagenu Koldo bera izango genuke seguruenik, bizi izatera, mintzen eta atsekabetzen lehena. Mintzeaz gainera ez luke agian halako okerrik, bekatari nabarmenari hitz-ereditxo bat esan gabe, onartzen asmatuko. Jakin badakigu guztiok jenioz bizia genuela Koldo: hain begiko zuen Xenpelarren Pasaiako zezen igerilaria bezain bizi. Nor ez da gure artean, alde edo moldez, inoiz edo behin bere bizitasun hark eragindako eztenkaden testigu, pizgarri edo jomuga izan? Neurritz jokatu nahi genuke beraz, maisu handiari zor diogun errespetuak agintzen duen gisan, Mitxelenaren ekarpen soziolinguistikoen analisi-saio xume hau egiterakoan. Aitorturik bego hortaz kezka, eta argi adierazirik asmoa. Gatozen, besterik gabe, harira.

Mende luzea daramagu euskaldunok, euskara nola indarberritu aztertzen eta eztabaidatzen³: aztertzen, eztabaidatzen eta, ahal izan denetan, diagnosti-

¹ Euskaltzaindiak 1978an argitara emandako *Euskararen Liburu Zuria*-n, bertako hitzaurrean zehazki, dator Mitxelenaren esaldi hori. Izenburu hau du euskarazko hitzaurreak: *Euskararen bide luze bezain mallarrak*. Gaztelaniaz (jatorrizko idazkeran?) *El largo y difícil camino del euskara*.

² 2015eko irailean, EHUren Donostiako Udako Ikastaroetan, Mitxelenaren gorazarretan irakurritako txostenean azaldurik dugu hori.

³ Ohar bi egin behar dira hemen: a) lehenagoko hainbat saioren aipamena eta azterketa alde batera utzi da gaurkoan, gaiak hala eskaturik; b) aniztasun etnokulturalaren eta hizkuntzen elkarbizitzarako *pluribus*-filosofiaren aldeko euskaldun euskaltzaleon jardunaz eginga da langintza hori, baina euskaldun-euskaltzaleak ez dira alor horretako eragile bakar: ez bakar eta ez, hainbatean, bilakaera soziolinguistiko globalaren bidegile nagusi. Hor daude, izan ere, kanpoko zenbait aditu-

ko bateratura iritsi eta, elkar hartuz, adostutako egitasmoak osatzen. Ez gara munduan bakarrak, ahuldutako egoeran gaudenak eta, hizkuntza bizirik gordeko badugu, konponbideren bat asmatu, zehaztu, adostu eta aplikatu beharra daukagunak. Milaka hiztun-elkarte dago mundu zabalean, arriskupeko hiztun-elkarteen sailean. Milaka horietarik gu baino egoera erosoagoan daude batzuk, gure parean-edo dabilta beste zenbait (demagun, galestarrak) eta, azkenik, gu baino nabarmen okerrago daude ahuldutako hiztun-elkarte gehienak. Nabarmen okerrago dauden horiek galdurik dituzte normalean beren behinolako mintza-esparru nagusiak, are han-hemengo arnagune gehienak, XX. mendeko modernizazio- eta globalizazio-prozesuekin, berrikuntza soziokulturalekin edota integrazio politiko-operatibo zein ekonotekniko berritzaileekin. Soziokulturalki autorregulatzeko ahalmena galdu izanaz gainera debaileki etenik dute belaunez belauneko transmisioa, adin batetik beherakoaren artean, eta bizimodu arruntaren sostengu diren erabilera-eremu gehienak (etxea, auzoa, lagunarte hurbila,...) galdurik edo galtzeko puntuan dituzte, kide gazteenen artean bereziki. Aldiz gu baino egoera hobea (xeago)an dauden ahuldutako hizkuntzek bizkorrago dute beren hizkuntza propioaren belaunez belauneko transmisioa, demolingüistikoki (hiztun-kopuruz eta hiztun horien kontzentrazio-mailaz) indartsuago dabilta eta espazio soziofuntzionalean, hitzez eta idatziz, gureak baino hedadura zabalagoa dute beren hizkuntza propioek. Mendebalde honetan ez dira asko, nolana ere, ahuldutako egoeran egonik euskaldunok baino nabarmen osasuntsuago ageri direnak. Batzuek eta besteek, gu baino osasuntsuago eta gu baino larriago dauden hiztun-elkar- teek, ikasbide ernagarria eskaintzen digute euskara indarberritu nahi dugun herritar, aditu eta erakundeoi. Begiak gora zein behera itzuliz badugu horiei eskerrak, gure eginbeharrari ekiterakoan, nori begiratu eta zer ikasi: batzue- tatik (gorago daudenetatik) adina besteetatik (osasunez nabarmen larriago daudenetatik) ikas dezakegu, zenbaitek besterik uste badu ere. Konparazio- eta kontraste-aukera aparta eskaintzen digute, azkenik, gure parean-edo dau- den hiztun-elkar teek.

ren eta hainbat euskalariren saioez gainera, mintzajardunaren bestelako gizarte-moldaera izanik dutenak amets: tartean, nola ez, euskararen etorkizunaz aparteko kezkarik agertu izan ez dutenak edota, halakorik egitekotan, euskararen belaunez belauneko iraupenaren kontra agertu diren hainbat euskaldun eta erdaldun, banaka zein taldean.

Ez gaitezen ordea engaina. Munduan bakarrak ez izan arren, eta auzoko hainbat saio argigarri izanik ere euskaldunontzat, nekez konponduko ditugu gure gaitzak eta ajeak, besterik pentsa bageneza ere, auzoko sandiari edo haren alboko urliari zerk ondo funtzionatu dion eta zerk oker azertu hutsarekin. Beste aldi eta beste lekuetan emaitza ona ekarri izan duen botika ez dugu maiz, damurik, etxeko gaixoaren osasunak hobera egin dezan egoki, are gutxiago fidagarritasun beteko osasun-berme. Gure-gurea den hainbat ezaugarri bekokian iltzaturik daramagu euskaldunok, mintzajardunaren giza arteko moldaerari dagokionez. Gure bereizgarri horiek kontuan izango dituen sendabidea behar dugu, ez norbaitek noizbait eta nonbait asmatu botika unibertsal mirezgarria. Gure etxerako egokia den, hemen eta orain aplikatu litekeen, irtenbide⁴ zuhurrena bilatu, zehaztu, adostu eta aplikatu beharrean gertatu gara horregatik, behin eta berriro, XX. mendean. Ez da noski lan erraza: Oihaneko Legeari aurre egingo dion hiztun-herrri handien eta txikien arteko gizabidezko elkarbizitza adosteak berez duen zailtasun jeneralari, gure «hic et nunc» bihurriaren berezitasunak erantsi behar zaizkio ezinbestean. Horrek egin eta egiten du gure lanbidea, bestela ere aski baldar eta nekagarria, delikatuago eta, ondorio-aurreikuspenei dagokionez, duda-mudakoago. Eztabaida-iturri luze, sarritan mikatz eta ia beti unagarri bihurturik ditugu, horrexegatik, honako bi galdera hauek: a) euskara nora eraman, noraino jaso, nahi dugu?, eta b) hain ahuldurik dagoen hizkuntza nola indarberritu?

Etxeko eta kanpoko asko izan ditugu, 1900etik 2000ra bitartean, korapilo hori askatzen saiatu direnak. Alde batera utziko ditugu gaurkoan⁵ euskararen indarberritzea begi onez ikusi edo ikusten ez dutelarik amore ematea gomentatzen dutenak: hots, gurea bezalako gizarte-bizitza moderno, globalizatu eta

⁴ Zehazkiago, irtenbide-sorta. Azpeitian eta Durangon ezin da egitasmo berbera aplikatu, itxurazko etekinik atera nahi bada. Are gutxiago Markinan, Zumaian edo Leitzaan batetik eta Irunen, Donibane Lohizunen edo Maulen bestetik. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko plan orok oso kontuan izan behar du lekuan lekuko egoeraren aldakortasun hori, «plangintza orokor» delakoaren lilura hutsalak itsutuko ez badu saioa, eta ondorio makurrera eraman hainbat ilusio eder eta hainbat eginahal bizi.

⁵ Kontzeptu-lanketaren aldetik badute halere interesik aski beren jardunak, motibazioak, azalpen hurbilak eta azken xedeak.

supraetniko batean egin litekeen gauzarik zentzuzkoena «amets txoroak behingoz baztertuz» nahikunde hutsal baizik ez omen diren jomuga nostalgikoak alde batera uztea komeni dela diotenak⁶. Herritar edo ordezkari horiek aho batez babesten duten *unibus*-asmoaren gaintetik, edota horren eskuz esku, *pluribus*-filosofia soziokulturala aldarrikatzen dugunongan zentratuko gara hortaz, gaurkoan. Aniztasun soziokulturalaren aldeko herritarrok, adituok eta herri-aginteok goiko bi korapilo horiek askatzeko asmatu, zehaztu, partez adostu eta hein batean aplikatu izan ditugun neurriak izango dira gaurkoan aztergai. Koldo Mitxelena-ren berrogei urteko gogoeta jorien eta eztabaida bizien argitan aztertu nahi dugu hori. Aztergai dugun urte-epea ongi mugarizaturik dago: aurrelan bat edo beste tartean izanik ere badakigu, bibliografiaren argitan, 1950 inguruan hasia dela Mitxelena-ren jardun nagusia, linguistikan zein hizkuntza-soziologiaren esparru teoriko-praktikoan, eta 1987ra arte eginbehar bikoitz horri bizi-bizirik eutsi ziola.

Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioen esparruan, linguistikan bezala, Mitxelena ez zen hutsetik abiatu zale: erdal esapide ezaguna gurera aldatuz, «Mediterraneorik deskubritzen» ibiltzea ez zuen Koldok gogoko. Aurrekoek esandakoak eta, bereziki, han-hemengo adituek arrazoibide zehatzez adierazitakoak sakon aztertu ohi zituen, aitzitik, eta, probetxuzko irizten zien neurrian, begitarte arraiz bereganatzen eta aplikatzen zituen. Begirune handiz jokatu ohi zuen horrelakotan. Besterengandik jasotako ideiak, irizpideak eta, bereziki, datu zehatzak nondik hartuak zituen garbi adierazi ohi zuen eta, aitormen espres horiei eskerrak, badugu orain bere ekarpen erraldoia osoago eta zehatzago ulertzeko lagungarri aberatsik. Jakin badakigu, horrela, hizkuntza-soziologiaren XX. mendeko kontzeptu eta termino giltzarri asko (batez ere 1950etik 1975era artekoak⁷, ahal izanik iturritik beretik⁸ jaso ohi zituela. Itxuratxarki aldatu gabe jaso ohi zituen

⁶ Zeharbidezko datuen argitan jokamolde hori uste duten ugariak eta, bereziki, argi eta garbi bide horri ekitea gomendatzen duten bakan-ausartagoak.

⁷ Ikus Zalbide 2015b.

⁸ Iturritik beretik edo, dokumentua idatzita zegoen hizkuntza eragozpen larri zuenean edo bestelako trabaren bat tartekatzen zenean, beretzat garantia handiko beste norbaiten arartekaritaz jardun ohi zuen eskuarki.

horiek guztiak eta, batez ere, kontzeptualki aski era koherentean aplikatzen. Hori bakarrik ez zuen halere, «bakarrikako» hori asko izanik nolana, Mitxelenak egin. Besterenak zintzo eta sakon hausnartzeaz gainera, bere-berea duen kontzeptu-sare eta formulazio-mundu aberats-kiribila eraiki zigun errenteriarrek, hizkuntza-soziologiaren sailean. Hori paratu zigun, konkretuki, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioen formulazio-esparru teorikoan. Horren alde eman litezkeen frogantza ugarietako bat aipatuko dugu hemen, gainerakoen lekuko: 1951ko bere *Euskal literatura-ren etorkizuna*⁹. Ebaluaziozko hausnarketa orekatua eta aurrera begirako bideberritze-saioa eskaintzen ditu bertan. Gogoeta-lan jakingarria da oso, 1950 inguruko gogo-giroaz eta zaharberritze-asmoez jabetzeko. Asko dago bertan aurreko bidegileetarik jaso: ikus, adibidez, kaletarren bizimoduak berezko dituen eginkizunetara egokituriko hizkuntza-eredu berria landu beharraz dioena. Lizardiren eragina, distira eta oihartzuna bizi-bizirik dago hor, tupiki ozenez sendotua¹⁰. Aurrekari argiak ditu lan horrek, hortaz, baina idazlana berria da osorik: alderik alde berria eta ardatz-sorkuntza, sintesi zein formulazio aldetik arnasbide handikoa. Horrelakorik gehiago ere badu Koldok, azalpen guztiak hain hizkera jaso, sarkor eta hunkigarritz adierazi izan ez baditu ere. Dotorezia handiko azalpen landuetan, orobat zorrotz emandako zenbait erantzunetan, ukaezina da ondorioa: gizar-te-egoera berrira egokituriko paradigma trinko baten sortzaile dugu Mitxelenena. Hizkuntza-soziologiaren jakintza-esparruan bide-urratzaile. Jakintza-esparru zabalean eta, batez ere, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko eginkizun posibleen zehaztapan-lanean¹¹ oinarri-eraikitzaile eta estrategia-definitzaile izanik dugu errenteriarra.

Gatozen beraz, aurrekari horiek hor ditugula, aspaldiko ildoari eutsiz gaurkoan argitu nahi genituzkeen puntu nagusietara. Gorago azaldu dugunez galdera bi ditugu, batez ere, erantzun eske: nora eraman, noraino jaso nahi dugu euskara?; nola indarberritu behar dugu euskara, begiz jotako mai-

⁹ Jatorrizko iturria: *Egan* 1951, 17-21.

¹⁰ Hori bakarrik ez: espresuki aipatzen du Lizardi, behin eta berriro, bere gogoeta-saio horretan.

¹¹ Zehazkiago esanik, eginkizun alternatibo posibleen eta, bereziki, beraien lehentasun-neurrien zehaztapan-lanean.

la horretara eramateko? Ez dira galdera biak, bistan denez, zeharo bereiz eta elkarren arrotz. Puntu amankomun bat baino gehiago dute, eta kausa-on-doriozko loturarik ere ez da beraien artean falta. Badute batak zein besteak beregaintasunik aski, ordea, berariaz lantzeko. Banan-banan aztertuko ditugu hortaz, ondoko lerroetan¹².

I. Euskara nora eraman, noraino jaso, nahi dugu?

Ahuldutako hizkuntza indarberritzea denez helburu, euskararen gizarte-estatusa, etorkizun hurbil edo ertainean, noraino jaso nahi genukeen zehaztea eskatzen digu horrek. Xehago ere planteatu liteke galdera: «gutxienez noraino jaso behar dugu gure hizkuntza ahuldu hau, belaunez belaunezko jarraipen-katea eten ez dakion eta, ahal delarik, euskarazko mintzajardun bizia hiztun-multzo, leku-eremu, jardungune eta agerbide berriak irabazteko gai izan dadin?».

Gaia ez da batere erraza, eta nekez bilatuko dugu errenteriarraren baitan (gainerako guztietan bezala) inor asebeteko duen formulazio teoriko-kutsukorik. Gehienez ere, galdera horrek gizarte-bizitzan (are euskaltzaleen artean) aski erantzun desberdinak dituela dioen aitormen leiala. Honela ikusten zuen Mitxelenak gutxienezko langa-jartze horren kontua 1975ean: «Baroja aipatuz gero, berez dator euskarak gure artean behar lukeen lekuaren auzia. Bizirik irauteko adinbat den leku opa diogu, gutxienez, baina hori aitortzea ez da aski, X-ek, aita Mokoroak eta nik ipiniko genituzkeen mugak ez baitira berdinak zabal-meharrean.» (*Anaitasuna*,

¹² Iturri askotxotan bila litezke, berez, Mitxelenaren gai horiei buruzko azalpenak. Bere idazlanak (zehazkiago: oraingo edo lehengo perspektiban hizkuntza/gizarte binomioaz diharduten bere idazlanak) azterturik ditut berrikitan: ikus EHUren udako ikastaroen baitan irail hasieran emandako hitzaldirako prestaturiko txostena. Gaurko ekitaldi honi ezarri zaion enfokea aintzakotzat hartuz, halere, ez naiz dokumentazio osoaren analisi sintetikoan zentratu. Aitzitik, gaiari aurrez aurre erantzuteko balio-indar berezia duten (hala dutela iruditzen zaidan) artikulua eta elkarrizketa jakinetan pausatu ditut oraingoan begiak. Batez ere hauetan: *Euskal literaturaren etorkizuna* (1951); *Euskararen bide luze bezain malkarrak* (1978); *Muga* aldizkariak eginiko elkarrizketa (*Muga* aldizkaria 13, 1981: 30-43); «Elkarrizketa», (*Argia* urtekaria, 1987, 20-32 or. Ikus orobat MEIG IX, 66-85).

1975-I-15). Hots, bizirik irauteko adinbat den leku opa behar zitzaion euskarari, lehenik eta behin, eta, pausoz pausoko gorabidean¹³, hortik aurrera egiteko aukera eman.

Erraza ez izateak ez du esan nahi, jakina, eginkizun hori ezinezkoa denik erabat. Perspektiba teorikotik posible da berez, eskuartean dugun denbora-mugak eta gaiaren elkorrak hartarako aukera handirik ematen ez digun arren, kontzeptu-argitze bati ekitea. Joshua A. Fishman-en 1967ko *Bilingualism with and without diglossia; Diglossia with and without bilingualism* famatua eskumutil harturik hona, labur-labur, lehen hurbilbide gisa egin litekeen mugarriztatze-lana¹⁴.

Diglosiari¹⁵ bere dimentsio kolektiboa atxikiz batetik, eta elebitasuna hitzunen atributu pertsonal gisa hartuz nagusiki¹⁶, lau egoera

¹³ Pausoz pauso joan beharraz ikus, adibidez, *Muga* aldizkariak argitaratutako emandako elkarrizketan dioena.

¹⁴ Hitzun-elkartearen (edo bere baitako hitzun-talde edo harreman-sare jakinen) diglosia hartu behar da horretarako kontuan, alde batetik, eta norbanako hitzunen elebitasuna arakatu behar da bestetik. Galdera bi hauei erantzun behar zaie horretarako: a) Hitzun-elkarte horretan (edo bertako hitzun-talde edo harreman-sare jakinetan) ba al dago hizkuntza biren luze-zabaleko konpartimentazio soziofuntzional egonkorrik?; b) Hitzun-elkarte horretan (edo bere baitako hitzun-talde edo harreman-sare jakinetan) elebakar al dira norbanako hitzunak, ala elebidun?

¹⁵ Elearteko diglosiaz (nahiago bada Heinz Kloss-en *exodiglosiaz*) ari gara hemen, ez beste zenbait kontutarako interes bizikoa dugun elebarnekoaz, *endodiglosiaz*, alegia. Ferguson-en 1959ko *classical / vernacular* formulazio dikotomikotik hurbilago lebilke endodiglosiazko formulazio hori, oro har. Estuki harturik ez da ordea, inola ere, baliokide huts: *classical* aldaeratik urrun dago euskara batua, egungo egunean; lehenaldian, berriz, erdara batek (latinak, gaztelaniak, gaskoi-erdarak, frantsesak...) bete izan du sarrien *H status* hori.

¹⁶ «Elebitasun» eta «diglosia» kontzeptuen mugarrizte-aukera terminologiko hori ez du unibertsaletan; bere lanketa akademikoak joan den mendean izan duen ibilbidean aho batez onarturikoa ere ez. Egon badago, ordea, aspaldixkotik gainera (demagun Ronjat-en 1913ko *Le développement du langage observé chez un enfant bilingue*, azpimarra gurea), nagusiki hitzunen elebidunez eta gizarte diglosikoez hitz egiteko joera zabala. Joera zabala bai, baina ez erabatekoa. Adiera-banaketa terminologiko zabal horren formulazio alternatibo baterako ikus Josiane F. Hamers-en eta Michel Blanc-en 1983ko *Bilingualité et bilinguisme*, orain ere jarraitzailek falta ez duena; horietariko baten hitzetan «alors que la notion de bilinguisme s'apparente à la notion d'aménagement linguistique du fait qu'elle réfère à l'état d'une société où deux langues sont employées; la bilinguisme est un concept psycholinguistique du fait qu'elle réfère à la manière dont un individu, qui a accès à

ideal¹⁷ gerta litezke hiztun-elkartean (elkarte osoan edo bertako hiztun-talde edo harreman-sare jakinetan), hiztun-elkarte hori hizkuntza biz¹⁸ baliatzen denean bere baitako harremanetan: a) diglosiarik eta elebitasunik gabeko moldaera (adibidez, guztiok euskaldun elebarkar); b) diglosia bai baina elebitasunik ez duen moldaera (hiztun batzuek A hizkuntzan; besteak B-n, batean zein bestean elebarkar izanik hiztunak); c) diglosia eta elebitasuna dituen moldaera: hiztun-elkartearen espazio soziofuntzionala bitan banaturik, espazio horren zati batean, bestean edo (askozaz nekezago) bietan ari direnak elebidun izanik; eta d) diglosiarik gabeko baina elebitasunezko moldaera (irau-penezko konpartimentazio soziofuntzionalik ez duen baina une horretan hiztun asko (parte ohargarria, gehienak, guztiak...) elebidun dituen moldaera. Hona, xeheago eta gurera hurbilduz, lau irtenbide teoriko horien zenbait ezaugarri:

plus d'un code linguistique pour communiquer» (El Euch). Ondotxoz lausoagoa da norbanako planoaren eta talde-dimentsioaren bereizbidea «elebidun / zweisprachig / bilingue / bilingüe» terminoan. Bietan (norbanako planoan eta talde-dimentsioan) erabiltzen da sarri hitz hori, batean zein bestean «aniztasun»-adierazle generiko ere badelarik maiz horko «bitasun» hori. Demagun, berriro, Sonia El Euch irakaslearen azalpena: «un individu dit bilingue peut, en réalité, utiliser plus de deux langues et une société dite bilingue peut, dans les faits, être caractérisée par la présence ou usage de plusieurs langues». Aldeak alde eta joerak joera, dimentsio indibidualetik (norbanakoaren hizkuntza-gaitasunetik, eta gaitasun-maila jakina eskuratzeko bideak berariaz aztertzen dituen psikolinguistikatik edo, are, neurolinguistikatik) hurbilago dabil *elebitasun* kontzeptua oro har, eta hiztun-elkartek (edo bere baitako hiztun-talde edo harreman-sare jakinek) talde edo sare barneko mintzabeharrak asetzeko hizkuntza bi edo gehiago erabiltzeko moldeez arduratzen den hizkuntza-soziologiatik arras hurbilago *diglosia*. Goiko hori ez da, beraz, terminologiazko hautu unibertsala, bai ordea Fishman-en eta, bere bidetik, hizkuntza-soziologiaren alorrean ari (izan) diren aditu askoren formulazio operatibo argia.

¹⁷ Fishman-ek berak argi azaldu izan duenez, eguneroko errealitatea era askotako nahas-egoerez beterik egon ohi da sarri. Nahas-egoera horiei dagozkien ñabardura ugariak lauok zati-banatzeko «logiko»a baino egoera konplexuagoak sortzen dituzte askotan. Eredu huts da berez lau ataleko formulazio teoriko hori: hots, errealitatearen adierazpen abstraktu eta sinplifikatua. Beste era batera esanik, oinarri-oinarrizko sailkapen-saioa da 1967ko hura, beraz. Aplikazio konplexuei buruz han-hemen eginik ditu saio jakingarriak: ikus, adibidez, diasporako judu-hizkuntzei buruzko azalpen soziolinguistikoko zehatzak.

¹⁸ Hizkuntza biz edo gehiagok, ohiko definizio-bidetik: ikus azken-aurreko oin-oharra.

a) *diglosiarik ez, elebitasunik ere ez*. Hots, hiztun-elkartearen edo bertako hiztun-talde edo harreman-sare jakinen giza arteko mintzajardunean diglosiarik eta elebitasunik ageri ez deneko moldaera. Zenbaiten esanean ia ezinezko egoera da hori, gizarte garatuetan: lehentxeago edo beranduxeago bereizi egiten dira bertako hiztunen mintza-beharrak eta, horrek eraginik, dibertsifikatu egiten da azkenik hiztun-elkarte horren aldaera-sorta. Teorikoki hiztun-herri elebakar edo diglosiagabetzat hartu izan dira halere, lehen hurbilketa moduan, Portugal eta Islandia.

Gurera etorri, eta ñabardurak ñabardura, honelako formulazio praktikoa lekarke diglosiarik eta elebitasunik gabeko moldaerak: hiztun-elkarte barruko mintzajardunari dagokionez, guztiok erdaldun elebakar edota guztiok euskaldun elebakar. Euskaltzaleon perspektibatik, euskara hutsean oinarrituriko egitasmoa. Hots, erdararik gabeko Euskal Herria. Gaur egun (partez, oso nekez erabat) euskaraz dihardugun herritarrok eta gehiengo zabala osatzen duten erdaldunak, formulazio honen arabera, euskara hutsez bizi izango ginateke aurrerantzean, erabat edo oso nagusiki, Euskal Herri horren barne-jardunean¹⁹. Gero, arrotzekiko lotura-bideetan, handik haranzko mintza-harremana eskatzen duten goi-mailako jakintza-esparruetan, hiztun-herri batzuen eta besteen arteko saleroste kontuan, turismoan, Internet-en eta kultura-kontsumo supraetnikoan (zineman, pop-musikan, goi-mailako edo salmenta zabaleko literaturan...) *Language of Wider Communication (LWC) edo zabalkunde handiko hizkuntza* batez (gazelaniaz/frantsesaz) edo gehiagoz (demagun, aurrekoaz gain, ingelesaz) baliatuko liriateke elebidun batzuk. Moldaera hori gauza izango litzateke, definizioz, euskal hiztunen belaunez belauneko jarraipen osoa segurtatzeko eta, hiztun-elkartearen barneko harremanetan, hiztun-elkarte barruko mintzabehar guztiak (edo gehien-gehienak) euskaraz mamitzeko. Aldezle ugari izanik du formulazio horrek XX. mendeko euskaltzaleen artean: bai mende-hasieran, Koldo Eleizalderen ahotan²⁰, eta bai gero, 1956 ingurutik aurrera bereziki. Eleizalderen 1918ko azalpena gogoangarria da orain ere: «hemos de plantear y

¹⁹ Ez atzerritarrekiko harremanetan.

²⁰ Ikus Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren 1918ko sorrera-ekitaldian, *Restauración del Euzkera* txostenean (bereziki 431. orrian) azalduakoa. Eleizaldetar Koldobika ez dugu, gure artean, asmo hori

resolver ese problema de tal suerte que el euzkeldun pueda recibir en su propio idioma todas las enseñanzas posibles, desde la más elemental hasta la más superior, desde el deletreo primario hasta el cálculo de una órbita planetaria por el método de Gauss. (...) Cuando ese momento llegue – y llegará si queremos– el euzkeldun de cultura media o elemental no necesitará más que su propio idioma para la generalidad de los casos de la vida, y el euzkeldun de cultura superior necesitará uno o varios idiomas extranjeros, exactamente en el mismo grado y forma en que los necesita hoy un francés, un inglés o un alemán de análoga cultura; pero cuando tal momento llegue, es evidente que la lengua ordinaria, usual y corriente del euzkeldun de alta cultura será el Euzkera (...) (Eleizalde, 1919-20: 431).

«Tarta soziofuntzional eta demolinguistiko osoa»ren aldeze ditugu, beraz, 1918ko Koldo Eleizalde eta 1956tik honako hainbat euskaltzale. Horien ustez, oro har, hortik beherako helburuak ez du balio: kopuruz hain urri izanik euskaldunok, eta hain ugari erdaldunak, gainerako egitasmoak engainagarri huts dira. Euskararen agonia zertxobait luzatzeko balio dute, ez gaixoa sendatzeko: horretarako«tarta osoa» behar da.

Arazo gordin bi, zein baino zein gordinago, ditu «tarta soziofuntzional eta demolinguistiko osoa»ren formulazioak: a1) Haur-eskolatik hasi eta unibertsitatearen goreneko mailaraino euskaraz ikasten duten ikasleak, gutxiengoa izanik ere oraindik, gero eta ugariago dira. Irakaskuntzaren behe- eta erdi-mailetan, unibertsitate-atarirainoko ikasbidea ($HH+LMH+DBH+Batx$) bere osoan hartuta, gehiengo argia. Eleizalderen prognosi hura betetzeko bidean den edo ez konprobatzeko egoeran gaude, beraz, hein handi batean; asmoaren balio-indarra enpirikoki ebalua liteke parte ohargarriz, Eleizaldek planteamendu ausart hura egin zuenetik handik ia ehun urtera. Zer dio errealitateak? Goren mailako ikasbide horiek azken hamarkadotan ugazituz doazen arren, maila horretan egiten ari garen aurrerapen argia ez da, urrundik ere, belaunaldi berrion eguneroko mintzajardun arruntean parez pareko euskalduntze sakonik eragiten ari. Oraingoz ez da egia «cuando tal momento llegue, es evidente que la lengua ordinaria, usual y corriente del euzkeldun de alta cultura será el Euzkera». Kontrakoa, aldiz,

aldezten lehenengoa izana. Horretan ere bere maisu Sabino Aranarekin duen zorra nabarmena da. Horretaz jabetzeko ikus, adibidez, Zalbide 2015.

maiz entzuten zaio unibertsitateko irakasle euskaltzale bati baino gehiagori²¹ eta, oro har, bide beretik doa hainbat soziolinguistaren, euskaltzale askoren eta guraso gehienen eguneroko esperientzia praktikoa²². Teoria soziolinguistiko sendoenak aspalditxo azaldu zuenez, belaunez belauneko jarraipena²³ ez dago, bere hutsean eta bere baitarik, eskolaren (are gutxiago unibertsitatearen) esku. Oso bestelako indargarriak ezarri behar lirateke mintzajardunaren giza arteko moldaeran, belaunaldi berrien euskara hutsezko bizimodua zabaldu, zurkaiztu eta jeneralizatzeke. Aspertzearaino esplikatuz dago aspaldi luzean, inor gutxik kasu egiten badio ere letania horri, eskola bidezko indarberritze-saioak muga-baldintza gotorrak dituela berekin eta, eskolaren indarberritze-saioak luze-zabaleko mintzaldaketa eragingo badu, gizarte-bizitzaren bestelako guneetan eragin beharra dagoela haurrak eskolara bidali aurretik, eskolan diren artean eta eskolatzeko-aldia amaitu ondoko urte-sail luzean. a2) Eragozpen sektorial horri estatus-plangintzaren perspektiba globaleko balioespena erantsi behar zaio²⁴: egungo egoeran eta begien bistako etorkizunean euskaldun elebazarrez bakarrik osaturiko Euskal Herririk ez da inondik inora, *Prokrustes-en ohatze* ezin lazgarriagorik gabe, aplikagarri: ez euskaldungoaren kokapen-marko politiko-operatiboaren aldetik, ez gizarte-sektore zabalaren perspektiba ideologikotik eta ez, bereziki, bertako biztanle gehien-gehienaren osaera eta bilakaera demolinguistiko eta soziokulturaletik. Formulazio teoriko gisa hor dago; bertatik bertarako aplikazioari dagokionez ez da «hemen eta orain» egingarri.

b) diglosia bai, elebitasunik ez. Hots, norbanako planoan elebitasun nabarmenik ageri ez duen baina plano kolektiboan hizkuntza biren erabilera

²¹ Ikasgelatik atera orduko erdaraz ari dira euskal adarretako ikasle asko. Euskara bezainbat, edota euskara baino areago, gaztelania dute beren «lengua ordinaria, usual y corriente».

²² Ikasketa guztiak D erduan egindako hainbat gazte (40 urtetik gorakoa da zenbait, dagoeneko) erdarazko harreman-sareetan txertaturik bizi da partez edo osoz. Hori du bere L-esparruko mintzo nagusia.

²³ Zer esanik ez inoiz galdutako L esparrua berreskuratzea: *revernacularization* edo arbaso-hizkuntza etxekotzea.

²⁴ Bertako gertakarien orain arteko esperientzia, mundu zabaleko ebidentzia enpirikoa eta horren guztiaren argitan eraikitako formulazio teorikoa dira, gure ustez, balioespen global horretarako oinarri hobereena. Amets egitea eta itxaropen-egarriari mugarik ez jartzea zilegi dela diotenek gogoan izan behar lituzkete Samuel Johnson handiaren hitz hauek: «A lost cause is a cause whose adherents permit hope to take precedence over experience.»

konpartimentalizatuaz diharduen gizarte moldea. Behinolako²⁵ sistema hierarkizatu-itxiak ditugu moldaera soziolinguistiko horren prototipo ezagunak: herri xehe elebakarra A hizkuntzan²⁶ eta elite (orobat elebakarra) Bn ari izaten zireneko sistemak, tarte-bitarteko zubi-lana itzultzaile jakinen bizkar joan ohi zelarik sarri. Honelako moldaera berri bat (berr)eratuko balitz aurrera begira, eta gure artean aplikatu, ondorio probableena hau genuke: Euskal Herriko hiztun batzuk (batez ere jardungune edo harreman-sare batzuetakoak) erdaldun huts izango lirateke oro har²⁷, eta beste batzuetakoak euskaldun huts. Hiztun-talde bien arteko zubi-lana egingo lukeen gutxiengoa, orain ere, elebidun genuke²⁸. Mundu zabaleko hainbat antolamendu kolonialetan eta gure arteko ingurumen jakinetan²⁹ indarrean egondako moldaera teoriko hori ere bideraezina da, praktikan, XXI. mende-hasierako Euskal Herri honetan: eskuera ditugun datu demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatiboen argitan ezinezkoa eta, globalizazio-joerak azken mende-laurdenean daraman bidearen argitan, hurrengo hamarkadetan are bideraezinago. Hau ere formulazio posiblea da teoria hutsaren aldetik, aurrekoa bezala. Baina ez da aplikagarri. Euskaltzaileen zein euskal detraktoreen gogoko ere ez. Inork nahi ez duen eta, gaur-gaurkoz zein begien bistako etorkizunean, aplikaezin den formulak etorkizun meharra du.

²⁵ Europan, oro har, I. Mundu Gerra aurreko: ikus Fishman, 1982: 128 or.

²⁶ A-elebakar izan ohi zen maiz herri xehea, eta B-elebakar elitea: B bakarrik edota B+C (ez B+A) zekiena. Gurera etorritz gogoratu, adibidez, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetako hainbat apaiz nafarrek itzultzaile-lanean nola jardun behar izaten zuen, aginte-esparrutik argibide eske etorritako Bdunek Adunen informazio zuzena eskuratu ahal izateko.

²⁷ «Erdaldun huts» edota, argiago esateko, «euskaraz ez dakien erdaldun»: eskuartean dugun auzirako berdin du zinezko erdal-elebakar den ala, hirugarren edo n-garren hizkuntza baten ildotik, erdal-erdal elebidun.

²⁸ Ama-hizkuntzaz erdaldun edo euskaldun izango litzateke, horretan ez dago alde zuretik langa-mugarik, gutxiengo elebidun hori.

²⁹ Demagun Gipuzkoako *det-* eta *dut-*esparruetan, Nafarroa Garaian eta Beherean. Gainerako lurralde-eremuez (nagusiki Bizkaiaz eta Arabaz) ez dugu hain segurtasun dokumental handirik. Jakin badakigu, halere, *dot-*esparruko Ezkarain horrelatsu zirela kontuak, goren mailako onarpen espresaz antza, XIII. mendean.

c) *diglosia bai, elebitasuna ere bai*. Gizartean oro har, edota gizartearen atal zabal batean, diglosiazko eta elebitasunezko moldaeran banaturiko formulazioa. Hiztun-elkartearen espazio soziofuntzional, geoterritorial edo demolinguistiko osoan (edota espazio horren zati batean, bestean edo bietan) ari diren hiztunak³⁰ elebidun³¹ dira oro har. Hizkuntza edo aldaera batez (Az) ala bestez (Bz) egitera bultzatzen duen konpartimentazioa ondoko dimentsio hauek erabaki ohi dute sarri: kale/baserri dikotomiak, formal/informal/intimo bereizkundeak eta, zenbaitetan, ama-hizkuntza A ala B den. Gogoratu, nolanahi ere, nagusiki *uses variety* direla diglosiaren aurrez aurreko A eta B, ez *users variety*³². Paraguay hartu izan da, maiz asko, estatu mailako moldaera horren hurbileneko prototipotzat. Estatu-atal bati dagokionez, berriz, Suitzan aleman-dialektoz³³ mintzo den kantoimultzoa.

Zer esan nahi luke diglosiazko eta elebitasunezko moldaera horrek hemen, gure artean? Planteamendu ezagunetara³⁴ bagoaz, formulazio honek ez du euskararen nagusitasun-moldaera argiko «tarta» fisiko-territorial osoa bereganatzea planteatzen; ez doa Aturritik Ebrorainoko lurralde-eremu osoa euskara hutsezko esparru bihurtzera. L funtzioan euskararen menderik mendeko nagusitasun-moldaera nabarmenari (partez edo osoz) bizirik eutsi dioten lu-

³⁰ Zenbait kasutan, Suitza germanofonoan adibidez, hiztun-idazle elebidun: suitzera-alemanez mintzo dira oro har, eta aleman batuaz idazten dute sarrien. Bada azken urteotan, dena den, nederlandizazio-joerarik ere esparru horretan. Joera horrek, aurrera egingo balu, diglosia-galtze argia lekarke noski. Suitzeraz egingo lukete azkenik, hitzez eta idatziz, joera azken burura eramanez gero. Irakurri dugun bibliografia teknikoaren zuzen baldin badabil ez dago oraingoz, urrundik ere, aleman batua H alorrean desagertzeko arrisku hurbilik. Berrehun urte inguruko diglosia egonkor horren pitzaduraren sakonaz eta zabalaz ez dugu informazio zehatzagorik.

³¹ Zehazkiago esanik, bi hizkuntzaz edo hizkuntza bereko bi aldaera bereziz baliatzen dira hiztun horiek, mintzaira batz ala besteaz baliatu situazio soziolinguistikoak erabakitzen duelarik.

³² Dikotomia horretarako ikus, iturburura hegaldatur, Halliday, M. A. K., A. McIntosh eta P. Stevens (2007 [1964]) «The users and uses of language». In Webster, J. J. (ed.) *Language and Society*, 5-37. London and New York: Continuum.

³³ Zehazkiago esanik, dialekto batu-bakarra baino areago dialekto-multzo zabal-nabarra den (eta berrikitan arte idatziz kasik erabili izan ez den) *Schwizerdütsch*. Azken urteotako joera berriaz, zenbaitek (buruz ari naiz) *nederlandizazio* deiturikoaz, bada bibliografia jakingaririk.

³⁴ Ez dago halakorik asko, dakigularik. Gure ekarpenei dagokionez ikus, besteak beste, Zalbide 2015 eta Zalbide argitaratzeko bidean.

rralde-esparruak ditu aplikazio-gune nagusi. Lehenik eta behin arnaguneak, baina ez horiek bakarrik: horien bilgune diren herriburuak ere oso kontuan hartzekoak dira. Diglosiazko lurralde-eremu horietako euskaldunak elebidun dira eta, *ghetto* isolatuan bizi ez direnez³⁵, erdaraz jardungo dute aurrerantzean ere erdaldunekin (hegoaldean gaztelaniaz, iparraldean frantsesez), eta komunikazio-ahalmen zabaleko LWC³⁶ batean (gaurko egunean nagusiki ingelesez) zenbaitetan. Hizkuntza bitan oinarrituriko moldaera horrek gai izan behar du, bai euskal hiztunen belaunez belauneko jarraipena segurtatzeko eta bai, horren parez pare, ahalik eta jardungune eta rol-harreman gehienetan (esate baterako, senar-emazteen etxe barruko jardunean) *eus* > *erd* norabidean doan mintzaldaketa eragozteko. «Gizarte berri» honetako L esparru arruntenak, batez ere etxe-, kale- eta auzo-giro arruntean euskarari nagusitasun argia atxikitzen diotenak, lehenetsi beharreko jomuga dira. Udaleko hirigintza-sailean arkitekto-planoak euskaraz egotea ez da euskararen kalterako, bistan da; aipatu ditugun lehentasunetan ez daude ordea plano horiek, inola ere, aurreneko puntan: eguneroko mintzajardunari indartsuen eragiten dioten prozesuak, erabilera-esparruak eta harreman-sareak euskararen mende izatea da funtsezkoen, beharrezkoen eta premia larrieneko. Belaunez belau-neko hizkuntza-transmisioaren funtsezko oinarri dira horiek, lan-esparruarekin batean. Ez oinarri bakar, inola ere³⁷, baina bai funtsezkoen eta, batez ere, bere zailean askogatik egingarrien.

d) diglosiarik ez, elebitasuna bai. Euskara-erdaren konpartimentazio territorial eta soziofuntzional egonkorrik gabeko formulazioa. Hau da, seguruenik, 1978-82 epean eraiki genuen lege-markoaren oinarri ardatza. Ez dago dudarik euskararen aldeko hainbat ekimeni irtenbide zabala eman diola: ikusi besterik ez dago eskola esparruan (A, B eta D eredu bilakaera

³⁵ Gaur egun ez dira *ghetto* batean bizi, eta aurrerantzean gutxiago. Ez dago hor *ghetto*-arriskurik, jakinaren gainean adostutako konpartimentazio soziofuntzionala baizik.

³⁶ Hizkuntza-soziologian aspaldidanik kotsakraturiko terminoaren arabera, *Language of Wider Communication* da LWC.

³⁷ Kultura-kontsumo inprimatua, ikus-entzunezkoa, sare sozialetakoa eta, oro har, telematikoak egunetik egunera indartuz doaz hiztun gehienon artean: eskuera ditugun datuen argitan (ikus Xabier Bengoetxea, 2012) erdara jaun eta jabe da gaur, kontsumo horri dagokionez, arnagune gehienetan ere.

estatistikoan) zenbateko zabalkunde-eztanda eragin duen. Hiru belaunaldi-ko perspektiban oso bestelako panorama eskaintzen du ordea. Trantsiziozkoa, iraganbidekoa da definizioz, beti eta nonahi, *diglosiarik gabeko elebitasun zabalduaren* egoera hori. Ezin du belaunez belaun iraun. Hizkuntza bietako bat gailentzera, eta bestea baztertzeraz, darama formula horrek. Teoriaz euskal ele-bakartasuneranzko iraganbidea marka dezake berez, jakina. Orain arteko esperientzia ezagunaren argitan³⁸ beste norabidea du, ordea, kontuak: hizkuntzaren geroa indartsuen markatzen duten eguneroko jardungune, harreman-sare eta estilo informal-espontaneo-arruntetan erdara ari da nagusitzen. Erdal elebakartasuneranzko iraganbidearen aurrerapausoa da hori. Joera horri ezin zaio frenorik jarri ahuldutako hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio-eragile ez diren prozesuetan eraginez bakarrik.

Horra beraz, Fishman-en zatiketa laukoitzaren aplikazioa, gure errealitatearen argi-ilunak ahalik eta zuhurren kontuan hartzen saiatuz prestatu duguna. Zer dio horretaz guztiaz Koldo Mitxelenak? Gatozen bere idazlanetara. Oro har gutxi zehazturiko gaia du hori: *huntax eta hartax* zenbat (eta zein goi-mailan) jardundakoa den kontuan izanik, zinez gutxi landurik utzi digu funtsezko esparru hori. Ezin esan liteke, ordea, gai nagusi horretaz ezer esan gabea denik. Heldu izan dio gaiari han-hemen eta, halakorik egin duenean, aski erantzun argia eman izan dio bertako zenbait punturi. Gogoan hartzekoak dira, bereziki, honako hiru hauek:

- Euskara hutsezko (soil-soilik euskaldun elebakarrez osaturiko) Euskal Herririk ez du posible ikusten, inondik inora, begien bistako etorkizunean³⁹. Euskal Herri elebakar hori (hemen eta orain) hobestekoa denik ere ez du uste⁴⁰. Kanpoan uzten du beraz, deskuidorako zirrikiturik gabe, goiko a) alternatiba.

³⁸ Aurrez aurreko konstelazio etnokultural bakoitzari egotzitako ordainsarien eta zigorbideen araberakoa izan ohi da esperientzia hori, hemen eta nonahi.

³⁹ «Opa diogunaz osorik jabetuko balitz ere (gure hizkuntza), ez lituzke erdarak erabat baztertuko: erdarez ari naiz, eta ez erdaraz» (*Anaitasuna*, 1975-I-15).

⁴⁰ Ikus gorago azaldutako aipamena.

- Euskarari belaez belaeuko jarraipena bermatuko dion moldaera planteatzen du, bestalde, argi eta garbi: goiko d) alternatiba baztertu-rik du beraz, praktikan, hasieratik beretik.
- Goiko b) alternatiba (*diglosia bai, elebitasunik ez*), beste edonork beza-la, planteatu ere ez du egiten. Bistan da zergatik: mende joanetako egoera hierarkikoei dagokien moldaera-modu zurrun hori bideraezina da, gorago esan dugunez, XXI. mende-hasierako Euskal Herri hone-tan. Eskueran ditugun datu demografiko, ekonotekniko, soziokultu-ral eta politiko-operatiboen argitan ezinezkoa eta, globalizazio-joerak azken mende-laurdenean daraman bidearen argitan, hurrengo ha-markadetan are bideraezinago.

Bistan da, beraz, Mitxelenaren azalpen horien argitan c) aukera bakarrik gelditzen dela eskueran: *diglosia bai, elebitasuna ere bai*. Ez, jakina, behinola-ko diglosia molde zaharra, azken hatsa gure begien aurrean ematen ari dena. Bai, ordea, luze-zabaleko konpartimentazio soziofuntzional (eta, agian, de-moterritorial) argiz euskarari ingurumen jakinetan bere lekua segurtatuko diona, euskaldun-jendearen belaez belaeuko jarraipena segurtatzeko gai izango dena eta, hortik abiatuz, bestelako zabalkunde-lanari oinarri-aukera argirik eskainiko diona.

Aukera hori ez da batere erraza, hainbat motiborengatik: batetik, eta nagusiki, horrelako konpartimentazio soziofuntzional eta fisiko-territorial batek lege aldetik, lurraldearen ordenazio aldetik, askatasun pribatuen eta eginbide publikoen arteko liskar-arrisku potentzialen aldetik, bideragarritasun ekonoteknikoaren aldetik eta hauteskundetako iragazki-filtroaren aldetik zer eskakizun eta zer ondorio izango lituzkeen zehazten inor saiatu ez delako gure artean. Badu gainera alternatiba horrek, azkenik baina ez az-ken, osagarrizko eragozpena: *diglosia* hitzaren orain dela hiruzpalau hamar-kadetako erabilera partianoak lau haizetara barreiatu-rik du, euskaltzale askoren artean atximurka bizia eginik, sasi-adiera arras peioratiboa⁴¹. Arras zaila izateak ez du esan nahi, ordea, alde batera uztekoa denik: funtsezko auzigai teoriko baten aurrean gaude hor, eta honetan ere teoria ez da (zen-

⁴¹ Jardunik gara gai horretaz, zabalkiro, hain aspaldi ez dela: ikus *Bat* aldizkariaren 79-80 zenbakia.

baitek besterik uste izan badezake ere) eguneroko errealitatean ondorio zorrotzik ez duen denbora-pasako jolasa.

Mitxelenaren ustez, diglosia kontuarekin ez zen nola-hala jardutea komeni: aho biko ezpata izanik da diglosia, mende luzez, guretat eta gurea bezalako beste hainbat hiztun-elkarterentzat. Hori dela medio, kalte nabarmenez gainera bizi-iraupenerako berme-oinarri sendorik izanik du bere baitan. Mitxelenaren hitzetan «menderen mende iraun du euskarak, diglosia hori gorabehera eta iraun du jendearen ahoan, izkribuz ez bazen ere, hori izan delako lehen hizkuntza, beste guztien parean «gurea», ez «gureena» (MIG, X: 96). Horren ondorioz gomendio espres hau eman zigun 1978an, euskararen bide luze bezain malkarrak aztertu ondoan aurrera begirako proposamen konkretua egiterakoan: «Diglosiaren purgatoriotik ihesi goazela ez gaitzela ghettoaren ifernuan eror. Hizkuntza integrakuntza beste ezein bezain beharrezkoa dugu» (Mitxelena, 1978: 25). Hots, bera ez zen euskal elebakartasun territorial hutsaren aldeko. Aitzitik, terminologia teknikoaren arabera «diglosia whith bilingualism» delakoaren babesle agertu zen behin eta berriz. Aurrera begirako diglosia horrek, bistan da, ezin du diglosia zaharraren jarraipen huts izan, beste zerbait baizik: eskolan, administrazioan eta komunikabideetan, esate baterako, behar adinako sarbidea behar du euskarak, indarberrituko bada eta belaunez belauneko jarraipen-katea gero eta osoago segurtaturik izango badu. Euskara indarberritzeko orduan ezinbestekoak izanik ere, elementu horiek ez dira ordea, aurrerago ikusiko dugunez, Mitxelenarentzat konponbidearen muin eta lehentasunetan lehentasun.

2. Euskara nola indarberritu liteke?

Gauza bat da nora joan nahi genukeen argi (samar) izatea, eta beste bat hara iristeko zer egin behar genukeen ondo argitzea. Bigarren pauso horretarako aurrean zehatz bat dago, ordea, eginkizun: egungo egunean non gauden jakitea. «Atik Bra nola joango gara?» galderak ez du B hori ongi zehaztea bakarrik eskatzen: *boutade* modukoa badirudi ere, gurea bezalako egoeretan dauden hiztun-herri askotan «nora joan nahi dugu?» galderari erantzun egokia bilatzea bezain garrantzitsua da «non gaude?» galderari da-

gokion erantzun fidagarria eskueran izatea, on-beharrezko eta maitasun itsuzko liluramendurik gabe.

Gutxik egin du gure artean, esplizituki eta era sistematikoan, Mitxelena-ren pareko saiorik galdera horri erantzun betea emateko. Analisi deskriptiboari zinetikoa erantsirik dio Koldok, erantzun-lanketa horretan: zer pauso eman ditugu azken hamarkadotan eta, pauso horiei eskerrak, non gaude gaur? Kontu-errendatze horretan gogoan izanik ditu, gainera, hizkuntzaren giza arteko erabilera (A), hiztunen euskarazko gaitasun-maila (B) eta hizkuntzaren barne-osaera (C). Hona, bere azalpenak laburbilduz eta gure terminologia erantsiz, Koldo Mitxelena 1976an zein ondoriotara iritsi zen⁴².

(A): Hizkuntzaren erabilerak azken berrogei urtean (batez ere azken hogei urtean) izandako atzera-aurrerak. Lau alor hauetan bederen aldaketa handiak gertatu dira, onerako edo gaitzerako, eta horiek guztiak kontuan hartzen saiatzen da bera:

- Menderik mendeko bilakaerak hainbat transformazio demolinguitiko eragin badu ere han-hemen⁴³, ohiko dikotomia territorialak bizirik jarraitu izan du euskal mintza-esparruaren muingunean, XIX. mendearen hondarrera arte bederen⁴⁴. Ohiko dikotomia territorial hori galduz joan da ordea XX. mendean. Mitxelena-ren hitzetan «gaur gure herrian ezin berez daitezke, [gerra garaiko] Estatutoan egiten zen bezala, eskualde euskaldunak eta erdaldunak. (Dikotomia) honek, due-

⁴² Kontu-ateratze hori 1976an egin zuen Koldo Mitxelena, itxuraz, baina horren berri ematen zuen artikulua handik bi urtera argitaratu zen, *Euskararen Liburu Zuriaren* hitzaurre gisa. Urte biko tarte horrek ez du funtsezko ezer aldarazten, gure ustez, ondorio-emaitzen balio-indarrari dago-kionez. Laburregia da tarte, hizkuntza-soziologiaren perspektiban, horrelako aldaketarik gertatzeko.

⁴³ Euskal mintza-esparru tradizionalak kanpo-mugetatik eta, partez, hiriburuetatik izandako lur-galtze ohargarrien ondorioz gertatu izan da, bereziki, atzerabide hori.

⁴⁴ Hala gertatu izan da, XIX. mendea aski aurrera joan arte gutxienik, Gipuzkoako eta Iparraldeko eskualde gehienetan, Nafarroako ipar-mendebaldean, Bizkaiko erdi-ekialdeetan eta Arabako Aramaion. Horren ondorioz, eguneroko bizimodu arruntean euskaraz egin izan da hitzez (gutxitan, aldiz, idatziz), erabat edo nagusiki, mintza-esparru horretan; bestean, berriz, erdaraz egin izan da beti edo ia beti, hitzez eta idatziz.

la urte asko Julio Caro Barojak igarri zionez, ez du, hizkuntzari gagozkiola, muga jakinik, ez geografiaz (irizpideak oraindik bere balioa galdu ez duen arren⁴⁵), ez soziologiaz». Hots, gure terminologia teknikora bilduz euskal hiztun-elkartearen behinolako izaera territorial sendoa apurtuz joan da; izaera territorial hartatik arnaguneak baka-rik ari zaizkigu bizirik gelditzen.

- Euskararen galera territorialari belaunez belauneko atzerabidea erantsi zaio garai bertuan⁴⁶, hainbat eskualdetan. Belaunez belauneko atzerabide galgarri horri, ama-hizkuntzaren jarraipen-haustura larriari alegia, euskaltzaletasunaren eraginez batez ere, freno jarri zaio hein batean. Mitxelenaren esanean: «lehen aldiz historian, egitekoaren larriaz ohartu garela esan daiteke eta beronek dakartzan eskakizunak onhartu ere ditugula. Hortik ere dator, hein batez, Karlos Santamariak aipatu ohi duen “factor recesivo en la transmisión” delakoaren geraraztea». Garrantzi handia eman ohi zion Koldo Mitxelenak, 1975-1980 inguruan, mintzaldatzearen gerarazte horri: episodikoa izanik ere kontua, gogoratu garai-inguru hartako egutegi ezagun batean, bere aurpegi-argazkiaren oinarrian, iltzatu zuen «katea ez da eten» esaldi famatu hura.
- Mintzaldatzeari freno jartzeaz gainera, zabalkunde sendoa eragin da (idatzizko jardunean bereziki) euskarak luzaro debeku izandako zenbait jardungunetan: sarbide zuzena izan du bertan, ordura arteko konpartimentazio-arauak gaindituz. Bere hitzetan esanik «gogoan hartu behar dugu ere, eta bere egiazko indarrean neurtu, euskararen sarrera lehen, agerian nahiz isilean, debekatuak zituen toki, ataka eta barrutietan. Hau nabariagoa da, eta honela aitortu beharko, hizkuntza idatziari gagozkiola». Zabalkunde soziofuntzionalaren esparru horretan sartu behar da, bereziki, azken hamarkadetako liburu- eta aldizkarigintza, urtetik urtera (orduan) gora zihona. Mitxelenaren

⁴⁵ Horko letrakera etzana gurea da, aurreraxeago arnagunez dioguna hobeto ulertzeko.

⁴⁶ Luze-zabaleko mintzaldatze edo *language shift* delakoaren argitan hobe da, jakina, atzerabide territorial hori «belaunez belauneko jarraipen-katea eten izanaren ondorioz» gertatu dela esatea.

hitzetan «argitaldarien lana Errepublika garaian baino joriagoa izan da: orduan baino liburu gehiago argitaratu da, eta irakurleak ere ugariagoak dira».

- *Zweckprosa* delakoak⁴⁷ aurrera egin du euskaldunen artean. Bere hitzetan esanik «gure artean hainbeste kalte eragin duen bikaintasun nahiarekin batean⁴⁸ (...) literatur ederra soilki lantzeko gogo hura aienatu da». Hor dago «gaurko lan askoren izate praktikoa, estetizismo gabea: esku liburuak argitaratzen dira, ikaspideak, hiztegi bereziak, e.a., azken helburu bezala maila guztietako irakaskuntza dutela». Bide beretik doa Koldoren beste gogoeta hau: «aldizkariak (...) askoz hobeak dira egungo egunean, bai ikutzen dituzten gaien zabaltasunagatik, bai berauek gero eta trebeago erabiltzeko moduagatik».

(B): Hainbat euskaldunen hizkuntza-gaitasunak hobera egin du 1936-1976 epean (batez ere azken hogeitun urtean), zenbait barrutitan. Lehengo euskaldun arrunten eta oraingo euskaldun landuen artean hainbat alde antzematen du: tartean, eta ez da hori bere ustez gauza txikia, ongi alfabetaturiko multzoa, oraindik txikia baina eragingarria, ari da burua jasotzen; euskaldun berriek, gainera, berariazko pisua dute multzo horretan. Hona bere hitzak:

- «Egungo egunean, lehen aldikoz gure artean, bere hizkuntzan analfabeto ez den minoria ugaria dago».
- «Liburu hutsetan ikasi ez duen euskaldun berria gero eta ugariago eta eragileagoa da gure herrian».
- Elite edo protoelite euskaltzalearen osaeran aldakuntza nabarmena eragin du luze-zabaleko alfabetatze- edo euskalduntze-lan horrek. Gerra aurrekoek baino formazio soziokultural sendoagoa dute oraingoek, antza. Bere hitzetan esanik «gure kultur gidariak litezkeenen

⁴⁷ Funtsezko kontzeptu horren adieraz jabetzeko ikus Heinz Kloss-en 1953ko *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen seit 1800*. München. Euskarazko azalpen-saio baterako ikus Zalbide 2002.

⁴⁸ Arantzadi «Kizkitza»-ren 1935eko *Ereintza* (bertako atal baten sarrerakoa) aipatzen du Mitxelenak, hitzez hitz, dioenaren lekuko.

prestakuntza (ez gara gizarteko etorkiaz ari) oso bestelakoa da noiz-paitekoaren aldean».

(C): Hizkuntzaren beraren barne-osaerak 1936-1976 artean (batez ere azken hamar urtean) hobera egindako barrutiak interes biziz aipatzen eta, inoiz, goraipatzen ditu:

- adituek *elaboration*- edota *cultivation*-lanketa esaten dioten prozedurak aurrera egin du, euskararen bateratze-bidean. Aurrerapen handia irizten dio horri. Bere hitzetan esanik «harrigarria da, kazetaritzan adibidez, gero eta nabariago den batasuna, are elkarren kontrako diren aldizkarietan ere. Ez dira oztopo guztiak gainditu, ez eta gutxiago ere, baina prosa arruntaren mailan gero eta xeheagoak dira berezkuntzak, zenbait handiagoa izanagatik.»
- Gerraurrean «literatura ederra»-ren eta, are, *Kalevala*-ren edo *Mireio*-ren pareko *epos* nazionalaren bila ibiltzetik Heinz Kloss-en *Zweckprosa*, zerbitzuko prosa arrunta, lantzera doan bideberritze zabalak, gorago esan denez euskarazko ikasmaterialen eta gainerako lagungarrien produkzioa dibertsifikatzeaz gainera, mesede egin dio hizkuntzaren beraren lanketa-mailari.

Berriro diogu: «nora joan nahi den» jakitea ez da aski, «zer bidetatik jo» erabaki ahal izateko. «Non gauden» ere argi jakin behar da horretarako: «nora joan nahi den» bezain argi. «Egindakotzat, gauza jakintzat» ematen da analisi hori, hizkuntza-plangintzazko hainbat saiotan. Oker nabarmena da hori. Aparteko ekarpena eginik du Mitxelenak, azterbide deskriptiboz eta zinetikoz, gerraurreko eta gerraondoko egoera soziolinguistikoaz zuen ezagutza zehatzaz baliaturik. Gutxitan aitortu izan zaio bere 1978ko lan hari merezimendu osoz dagokion lekua eta garrantzia, luze-zabaleko plangintza egiteko saio ugarien esparruan. Nahiak nahikunde huts izango ez badira, «non gauden» jakitea «nora joan nahi dugun» erabakitzea bezain funtsezkoa da.

Demagun, beraz, badakigula non gauden eta nora joan nahi dugun. Zer pauso eman ordea, gauden egoeratik iritsi nahi genukeen hartara ahalik arinen, kostu edo kalte txikienaz eta etekin hoberenaz hurbiltzeko? Hori da,

esan bezala, gaurko aztergaiaren bigarren atala, oraingoan ere Mitxelenaren hobespen-irizpideen argitan analizatu nahi genukeena. Besteak beste direla, honako sei erantzun hauek eman izan zaizkio gure artean, XX. mendean, «euskara nola indarberritu liteke?» galderari⁴⁹:

Hizkuntza bera (bere barne-osaera) gizarte berri(tu)aren premietara egokitzea.

- Literatura ederraren eta xede arrunteko idazlangintzaren bidez hizkuntza landu, irakurle-jendea ugaritu eta euskalgintza osoa duintzea.
- Euskaraz (egiten, irakurtzen, idazten) ez dakitenei hizkuntza erakustea: batetik haur, gazte eta heldu erdaldunak euskalduntzea; bestetik, berriz, etxetik euskaldun diren haurrak, gazteak edota helduak alfabetatzea.
- Aginpidez, edo bestelako indar-neurriz, jendea euskara ikastera eta, are, jendaurreko eginbehar zenbaitetan euskaraz egitera bultzatzea.
- Dezakeen jendeak bere etxeko, lagunarteko eta jendaurreko jarduna euskalduntzea, herritar xeheak jokaera-arau berri horretara bilduko diren itxaropenaz.
- «Community fostering» edo ohiko euskal giro arrunta babestu eta suspertzea, eguneroko hitzun aktiboen belaunez belauneko jarraipena segurtatuz lehenik eta hortik aurrerako zabalkunde-aukerak (demo-territorialak eta soziofuntzionalak) indartuz gero.

Kontu ezagunak dira horiek guztiak, eta pauso-neurri bakoitzaren deskribapen xeheak luzeegi joko luke gaurkoan⁵⁰. Gatozen, beraz, puntuz puntuko aipamen laburrera. Ohar batekin, halere, ekingo diogu ebaluazio moduko horri: lehenengo pausoaz (euskara gizarte berri(tu)aren premietara egoki-

⁴⁹ Bistan da «sei» erantzunen kontu hori konbentziodko formula dela hein batean: berdin jar liteke hor «lau», edo «zortzi», segun eginbeharren bereizbidea sare larriz edo xehez iragazi nahi den. Inoiz, esate baterako, sailkapen laburragoa emanik dugu. Kopurua gorabehera, antzekoa da muina.

⁵⁰ Pauso bakoitzaren on-gaitzez ikus, sintesi gisa-edo, 2002ko gure *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?*

tzeko lanaz) ez dugu ezer esango, Joseba Andoni Lakarra euskaltzain-lagunak argitzekoa baitigu kontu hori. Gatozen, beraz, beste bostetara.

Zerrendako bigarren puntuaz, hasteko, badugu zer esanik aski: diogun, labur beharrez, puntu horretan zentratu-rik agertu zitzaigula Mitxelena 1951ko artikuluan, eta gai horren garrantzia argi azpimarratu zuela bizi-aldi osoan: etxekoetan Lizardi izan zuen, lehen eta gero, eredu argien⁵¹.

Zerrendako hirugarren puntuari, bere belaunaldiko euskaltzale gehienek bezala, aparteko itzala eta balio-indarra aitortu zion beti Mitxelena-k. Haur, gazte eta heldu erdaldu-nak euskalduntzea eta, batez ere, etxetik euskaldun zirenak alfabetatzea funtsezko eginkizuntzat hartu ohi zuen: diogunaren lekuko ikus, batetik, 1968ko Arantzazuko bere txostenean, sarrerakoan preseski, zer dioen; ikus, bestetik, «zer egin dugu eta non gaude» galderari erantzunez 1978ko *Euskararen Liburu Zuria*-n argitara emandako diagnos-tikoa.

Gatozen zerrendako laugarren puntura: aginpidez edo bestelako in-dar-neurriz, jendea euskara ikastera eta, are, jendaurreko eginbehar zenbaitetan euskaraz egitera bultzatzea du puntu honek xede. Sei puntuetatik hori izan zen, dakigun neurrian, Koldok gutxien landu zuena eta, landu zuenean ere, aparteko prebentzioz tratatu zuena. Ikus Irlandako Hizkuntza Politikarako arduradunarekin (1965 inguruan) izandako harreman zuzenetik ateratako gomendio-ondorioa: inoiz aginte-ahalmena eskuratzea iristen bazarete euskaldun euskaltzaleok, ez zaitezte hizkuntza kontuan herritar-jendea behartu zaleegi izan.

Gatozen bosgarren puntura: dezakeen jendeak bere etxeko, lagunarteko eta jendaurreko jarduna euskalduntzea planteatzen du bide horrek, herritar xeheak «goiko»-en jokaera-arau berri horretara bilduko diren itxaropenaz. Tradizio handia izanik du filosofia horrek gure artean, Iruñeko Estanislao

⁵¹ Kanpokoetan, aldiz, Pragako Eskolako zenbait kideren oihartzuna aurkitu uste izan diogu zenbaitetan. Joskera alorreko malgutasun-kontuetan ikusi uste izan dugu, besteak beste, antzekotasun hori. Ez gara, ordea, ondorio zorrotzegirik ateratzera ausartzen.

Arantzadi legegizonaren garaitik hasita⁵². Bide beretik ibiliak dira, handik gutxira, Koldo Eleizalde, Pierre Broussain hazpandar *midikua* eta beste zenbait euskaltzain, zerrendan azkena Krutwig izanik. Italiako Vilfredo Paretok eta beste zenbait soziologok eliteez eraikitako teoriatik hain urrun ez dabilen emulaziozko hurbilbide horrek bere eragina izanik du, gure ustez, Mitxelenaren baitan: bere zenbait artikulutako pasarte xumeetatik halakorik ondoriozta litekeela deritzogu. Euskara indarberritzeko jardunbide hori ez du ordea Mitxelenak, bere esan-eginak ondo ulertzen baditugu, inoiz helburu nagusi izan.

Seigarren pausoa gelditzen zaigu, azkenik: *Community fostering* edo ohiko euskal giro arrunta babestu eta suspertzea, euskara jaun eta jabe deneko lekuak eta jardunguneak berariaz zainduz eta, arnagune horien bidez, eguneroko hiztun aktiboen belaunez belauneko jarraipena segurtatuz lehenik eta hortik aurrerako zabalkunde-aukerak (demo-territorialak eta sozio-funtzionalak) indartuz gero. Seber Altube izanik dugu, askogatik, eginbehar horren zentraltasunaren lehenengo eta goreneko bozeramaile. Bai bozeramaile ozen eta bai, bereziki, teorizatzaile argi. Horren dudarik lukeenak ikus bitza orain ere balio-indar bizia duten 1933ko «La Vida del euskera» eta 1936ko «Más sobre la vida del euskera» saiakera-artikulu zabalak. Deigarri da puntu honetan Mitxelenaren baitan ageri-edo dena. Hamarkada luzez ez zuen (ez diogu halakorik aurkitu) gai hori berariaz azpimarratu izan. Aldiz gero, justu aginte-marko autonomoa sortu eta handik berehala, goitik behe-rako plangintzaren aukerabideak zabaltzen ari ziren unean, Altuberen ia 50 urte lehenagoko postulatuetara bildu zen erabat. Euskalgintzaren lehentasun nagusia *Community fostering* horretan finkatu zuen argi eta garbi. Elka-

⁵² Ikus, adibidez, 1902an Bilboko *Centro Vascon* emandako hitzaldia, izenburuz *Reconstitución del pueblo euskeldun en la lengua*: «En todas partes la decadencia de las lenguas ha principiado de arriba abajo (..) para la reconstitución en el país en que aún predomina ó se deja oír (..) basta con que las familias acomodadas y pudientes, especialmente las procedentes de territorio en que se habla el euskera que residen en Bilbao, San Sebastián, Pamplona y Vitoria, en lugar de interesarse como lo vienen haciendo en que sus hijos aprendan el erdera, pongan de su parte lo poco que necesitan hacer para que antes aprendan el euskera. (..) En todas partes es ley de la naturaleza que las clases superiores creen ó reconstituyan y el pueblo conserve, y que el pueblo acabe por abandonar lo que aquéllas abandonen.» (Arantzadi, 1902: 32-44)

rrizketa mamitsua egin zion Xabier Letek *Muga* aldizkarian, 1981ean. Hona Xabierren galderak eta Koldoren erantzunak.

Galdera: Ante este hecho, y cara a una recuperación, es por lo que hablábamos de priorizar unos ámbitos de utilización. En este grave momento de emergencia cultural cuáles tendrían que ser, según tu criterio, los ámbitos fundamentales de utilización del euskera? Yo propondría, como urgentes, el ámbito administrativo, el de la enseñanza, el de los medios de comunicación social.

Koldo Mitxelena: Sigo pensando que, con todo, el antiguo ámbito familiar y el de la comunidad local sigue siendo esencial. Y sin eso, tenemos que convencernos de que no hay nada que hacer, de que todo lo demás es cuento. (...) creo que hay ciertos ámbitos, los tradicionales, de uso familiar, amistoso, coloquial, de comunidad local, que es necesario cultivar. Y que eso es fundamental.

Kontura gaitezen, lehen esan dudana gorabehera «sigo pensando» dioela hor Koldo Mitxelena. Funtsezko iritzi hori ez zuen, antza, azken orduko bide-aldatze baten fruitu, are gutxiago ziaboga larri baten emari. Badirudi, aitzitik, oinarri-oinarrizko puntu horretan aspaldi samarretik izanik dela Mitxelena Seber Altuberen jarraitzaile. Zail da, izan ere, kasu honetan kanpoko teoriaren baten eraginaz hitz egitea: Fishman-en *Reversing Language Shift*, bete-betean bide horretatik doan formulazio teoriko-praktiko famatua, 1991koa da eta Mitxelena-ren aitormena («sigo pensando» moduan azaldua) 1981ekoa⁵³.

Azken hitz:

Gizon zentrala, giltzarri eta erabakigarri izanik da Mitxelena Euskal Herrian, goren mailako linguista izateaz gainera, XX. mendearen bigarren erdialdean. Hala izanik da errenteriarra, zenbait hamarkadaz, gure panorama soziokulturalean eta gero instituzionalean. Linguistikan bezalako lan-ekar-

⁵³ Izatekotan *Language Loyalty in the United States* izango zukeen argi-emaile, baina horren arrasto argirik ez dugu bere idazlanetan aurkitu.

pen zabalik egin ez bazuen ere kopuruz⁵⁴. Hizkuntza-soziologiaren esparruan ere aski gizon jantzia izan genuen Koldo: J. M. Sánchez-Carrión «Txepetx»-ekin batera, dudarik gabe, gure artean gogoetagile eta teoria-sortzaille landuena. Horrezaz gainera, inor gutxik bezalako jakituria eta ibilbide akademiko-profesionala zuen: Parisen, unibertsitatean, soziolinguistika-irakasle izanik da Koldo Mitxelena.

Formazio akademiko sendo horrezaz gainera euskara-erdaren historia sozialari buruzko ezagutza sakona, inork baino sakonagoa oro har, zuen errenteriar maisuak. Oraingo hainbat egoera soziolinguistiko perspektiba kronologiko zabalagoan proiektatzeko aukera ematen zion ezagutza horrek, eta bere ondoriok beti izan ohi ziren jakingarri. Euskara-erdarek XX. mendeko gizarte-bizitzan ageri zituzten moldaera bihurri, desorekatu eta egonezinezkoen jakitun zen oso, bestalde, aurrekoetan ez bezala kontu honetan bidelagun askotxo zuelarik bertako euskaltzale zintzo eta eragileenen artean. Bera baino euskaltzain zaharragoen artean estimu handitan zituen Koldo Eleizalde eta, goraipamen argirik inon irakurri ez diogun arren, funtsezko adostasun teoriko-kontzeptual batzuen argitan baita Seber Altube bera ere⁵⁵.

Kanpotik eskuratutako jakituria teorikoa eta bertako jardunean lortutako ezagutza praktikoa oso era pertsonal eta berezian uztartu zituen Mitxelena, aski goiz hasita: 1951ko bere *Euskal literaturaren etorkizuna* ezin alboratuzko dokumentua da orain ere, batetik, eta Xabier Letek 1981ean egin zion elkarrizketan adierazitako lehentasun-eskema oso da argigarri, bestetik. Seber Altube euskaltzainaren 1933ko eta 1936ko formulazio-bidearen aldeko agertu zen Mitxelena, lehentasun-eskema hori eskaintzerakoan. Joshua A. Fishman-ek 1991ko bere *Reversing Language Shift* famatuan dioenarekin bat dator, horrenbestez, muinaren muinean. Zeharo bat dator Mi-

⁵⁴ Hain emaitza zabala eskaini ez bazigun ere esparru horretan, arras deigarria da hizkuntza-soziologiaren alorrean agertu zuen ezagutza teoriko eguneratua eta, zenbaitetan, gure egoerari begirako ikuspegi zuhurra. Horri guztiari buruz ikus EHUren aurtengo uda-ikastaroen barnean, Mitxelena-ren gorazarretan egin berri den jardunaldian, aurkeztu dugun txostena, laster argitara nahi genukeena.

⁵⁵ Horrek ez du kentzen, beste zenbait puntutan (galdegaiarenean-eta, demagun) aski bide banatatik ibili izana bata eta bestea.

txelena, euskara indarberritzeko lehentasunen alorrean, bai Seber Altube-ekin eta bai Joshua A. Fishman-ekin.

Euskaltzale suhar, langile nekaezin, konstelazio etnokultural txikien eta handien artean gizalegezko elkarbizitza eratzearen aldeko bozeramaile ozen eta, ororen buru, punta-puntako linguista izateaz gainera soziolinguistika alorrean ere goi-mailako aditu izan genuen Koldo Mitxelena. Gure esparruari dagokionez nabarmena izan zen bere eragina, itzala eta irismena formulazio teoriko globalen muin-muineko alor gehienetan. Besterik da, hemen ere, aplikazio konkretuen barrutia: hizkuntza-soziologiaren aplikazio-eremu konkretu den hizkuntzaren estatus-plangintzan ondotoxoz esku-hartze mugatuagoa izan zuen. Aldiz gogoeta-lan aberatsa utzia digu eginik, iradokirik edo seinalaturik hizkuntza-soziologiaren alorrean aurrera egin nahi dugunoi: hori dugu bere altxor-ondarea, denboraren joanak nekez hutsalduko duena. Aspaldixko esanik dago, eta han-hemen sarri errepikatua: «there is nothing so practical as a good theory». Esaldi horren benetako izaeraz eta balio-indarraz jabetzeko aukera paregabea emanik digu Koldok, behin eta berriz: aski da bere lanak xehekiro aztertzea.

Datu biltzen eta sailkatzen, kontzeptu lantzen eta teoria osatzen egindako ekarpen zabal eta sakonagatik, bai eta beste hainbat motiborengatik, orain ere eredu argi, gogoeta-iturri emankor eta jakinbide fidagarri dugu Koldo. Guri dagokigu orain, begirunez baina lausengu alferrik gabe, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko alorrean hark zabaldutako perspektiba jenerala xehekiro aztertu, hainbat azalpen tekniko datu berrien argitan berrikusi eta bata zein bestea, hala dagokion heinean, eguneratzea. Gogo-pizgarri da langintza hori, bihurriaz gainera. Eginkizun dago oraindik, aski neurri zabalean, euskara noraino eta nola indarberritu zientzia-arauz argitzea. Argitze-lan horretan ezin baztertuzko argi-iturri dugu Koldo Mitxelena. Bere uzta ez da agortu.

Bibliografia:

Altube, Seber, 1933: «La Vida del Euskera» in *Euskera*, 1933-IV: 299-397 or.

———, 1936: «Más sobre la Vida del Euskera», in *Euskera*, 1936-I-IV: 1-217 or.

Arantzadi «Kizkitza», Engrazio, 1935: *Ereintza*. Zarautz.

Arantzadi, Estanislao, 1902: *Reconstitución del pueblo euskaldun en la reconstitución de la lengua*. Bilbo, Jose Astui.

Bengoetxea, Xabier, 2012: «Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa». *Bat* 85 zkia., 75-118 or.

Eleizaldetar Koldobika, 1919-20: *Metodología para la Restauración del Euzkera*. Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren 1918ko sorrera-ekitaldian, irakurritako txostena.

Fishman, Joshua A., 1966: *Language loyalty in the United States; The maintenance and perpetuation of non-English mother tongues by American ethnic and religious groups*. The Hague: Mouton & Company.

———, 1967: «Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism», in *Journal of Social Issues*, Volume 23, Issue 2, 29-38 or.

———, 1982: *Sociología del Lenguaje*. Madrid, Cátedra.

———, 1991: *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of assistance to threatened languages*. Clevedon: Multilingual Matters.

Halliday, M. A. K., A. McIntosh eta P. Stevens (2007 [1964]) «The users and uses of language», in Webster, J. J. (ed.) *Language and Society*, 5-37. London and New York: Continuum

Hamers, J. F., & Blanc, M. (1983). *Bilingualité et bilinguisme*. Bruxelles: Mardaga.

Kloss, Heinz 1953: *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen seit 1800*. München: Pohl.

Lete, Xabier, 1981: «Entrevista con Koldo Mitxelena» (*Muga* aldizkaria 13, 30-43);

Mitxelena, Koldo, 1951: «Euskal literaturaren etorkizuna», *Egan* 1951, 17-21

———, 1975: «Begiarmen Sei idazle plazara», in *Anaitasuna*, 1975-I-15.

———, 1978: «Euskararen bide luze bezain malkarrak / El largo y difícil camino del euskara», in *Euskararen Liburu Zuria / El Libro Blanco del Euskera*.

———, 1987: «Elkarrizketa», in *Argia* urtekaria, 1987, 20-32 or. *Ikus orobat MEIG IX*, 66-85).

Ronjat, J., 1913: *Le développement du langage observé chez un enfant bilingue*. Paris: Champion.

Zalbide, Mikel, 2002: «Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?», in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*. Donostia: EHIK.

———, 2011: «Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka», in *BAT* 79-80 zkia., 13-152 or.

———, 2015a: «XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan». *Hermes* aldizkaria, 50. zkia., 10-29.

———, 2015b: «Koldo Mitxelenaren ekarpen soziolinguistikoa». 2015eko irailan, EHUren Udako Ikastaroetan, Mitxelenaren gorazarretan irakurritako txostena. Argitaratu gabe.

———, Aurten argitaratzeko bidean: «Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak».